



Hiru, bi, bat... filmatzen!

Hemen da urte osoa itxoiten ari zinen unea:
GAZTEZULO IX. BIDEO LEHIAKETA

Istorioak irudi bidez kontatzea gustuko baduzu, nagia askatu eta hasi errodatzen!

Lanak entregatzeko aukera izango duzu apirilaren 9tik maiatzaren 25era. Ondoren, epaimahaikideak lan gutziak baloratu eta ekainean Bilboko Euskararen Etxean izango den sari banaketa ekitadian garaileen izenak jakinaraziko ditugu.

**Jarri martxan!
Sari potoloak
dituzu zain!**



AZKUE
fundazioa



AZKUE
fundazioa



LEHIAKETAREN OINARRIAK

Istorioak irudi bidez kontatzea gustuko baduzu, ez galdu zure talentua erausteko aukera!

NORK HARTU DEZAKE PARTE?

16 urtetik gorako gazteek. Bestalde, bideoan 16 urtetik beherako neska-mutilik agertuko balitz, ezinbestekoa litzateke guraso edo tutoreen baimena izatea.

ZE BALDINTZA BETE BEHAR DITUZTE LANEK?

Aurkezten diren bideoek aurten errodatuak, originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Ez da onartuko aurrez beste lehiaketaren batean aurkeztutako lanik.

IRAUPENA

Gutxienez minutu 1 eta gehienez 3 minutu (kredituak barne).

GAIA

Nahi duzuna kontatu dezakezu, mugarik ez!

OBJEKTUA

Film labur bakoitzean GAZTEZULO aldizkari bat azaldu behar da (zeharka zein istoriaren elementu garrantzitsu gisa).

HIZKUNTZA

Bideoak hizkuntz edukiren bat izatekotan (ahotsa, musika, elementu grafikoak...), honek EUSKARAZKO behar du izan.

LANAK ENTREGATZEKO EPEA

Bideoak **apirilaren 9tik maiatzaren 25era** aurkeztu behar dira, eguerdiko **12:00ak baino lehen**.

BIDEO KOPURUA

Pertsona edo talde bakoitzak nahi beste lan bidali ditzake.

TEKNIKA

Edozein teknika eta estilo erabiliko bideo-lanak onartuko ditugu.

FORMATUA

.mov eta .mp4 formatuan bidalitako bideoak onartuko dira.

ERANTZUKIZUNA

Parte hartzeak esan nahi du egileak aitortzen duela bidalitako lanaren eta haren edukaren ardura-duna dela.

ERREPRODUKZIO ETA ZABALKUNDERAKO ESKUBIDEAK

• Onartutako bideoen egileek GAZTEZULORI uzten dizkiete euren irudien komunikazioa eta erreprodukzio-eskubideak.

• Antolatzaileek beren gain hartzen dute bideo batzuk lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea; batetik, giza eskubideen urraketa, bortizkeria, irainak, arrazakeria, sexismoa edota errespetu faltak adierazten duten lanak eta bestetik, aurretik aipatutako baldintzak betetzen ez dutenak ere.

NOLA PARTE HARTU?

- GAZTEZULO.eus** webguneko 'Bideo Lehiaketa' atalean topatuko duzun formularioa bete. Bertan, taldearen izena, taldekideen izen-abizenak, herria, kontaktua, bideoaren izenburua eta deskribapen labur bat zehaztu beharko dira, besteak beste.
- Bideoak online bidalketa sistema baten bidez (**tori.eus** edo **wetransfer.com**) bidali behar dituzu **gaztezulo@gaztezulo.eus** helbidera.
- Ikusleen botoak eta iruzkinak **ekainaren 4ra arte** jaso ahal izango dira **gaztezulo.eus** webgunearen bidez.

Jasotako bideoak GAZTEZULORI YouTubeko kanalera igo eta **gaztezulo.eus** webgunean publikatzen joango gara. Beraz, zenbat eta lehenago bidali, orduan eta **Ikuslearen Saria** irabazteko aukera gehiago!

EPAIMAHAIA

Hiru adituk osatutako epaimahaiak lanak ikusi eta baloratu dituen kalitate tekniko, originaltasuna eta sormena kontuan hartuta. 2018ko edizioan **Iratxe Fresneda** euskal zinemagile, gidolari eta unibertsitateko irakasleak, **Esther Cabero** Kimuak programaren koordinatzaileak eta **Aitor Merino** aktore eta zinemagileak osatuko dute.

SARIAK

- 1GO SARIA:** bideo onenaren egileak 1.200 euroko saria jasoko du*.
- 2. SARIA:** bigarren bideo onenaren egileak 300 euroko saria jasoko du*.

IKUSLEEN SARIA: **gaztezulo.eus** webgunean **ekainaren 4ko 12:00etan** ikusleen boto gehien dituen lanaren egileak hainbat produktuz eta GAZTEZULO materialez osatutako opari sorta bat irabaziko du.

* Ogasunaren legediaren arabera, sarietako dagoen PFEZa atxikiko zaie.

Lan sarrituen arduradunak (edo ordezkari bat) ekainean Bilboko Euskararen Etxean izango den sari banaketara aurkeztu beharko dira. Hala izan ezean, antolatzaileek eskubidea izango dute ondorengo puntuazioz onena duen lana saritzeko.

